

## LUIS BARAIAZARRA, OLERKARI SARIZTATUA

### Olerkariaren duintasuna

Edonok autortu nai ezarren, olerkaria gizarteko beste giza-semeak baiño mailla batzuk gorago bizi dana da, dudarik bage Egunokaz sarri agertzen da telebistan espaiñar poeta Rafael Alberti, aspaldian erbesteratua Europa'n eta Amerika'n zear ara ona ibilli jakuna. Alkar-izketan, poesiari buruz berak beretzat daukon eretxia azaltzeko eskatu dautsoenean, eztau gauza argirik adierazo nai izan, baiña olerkia naiz norbere atsegiñerako naiz guztizko kulturarako, au da, norbere onerako naiz erriaren alde-rako, poesiari beti ezarri izan jakon balio berezia aitatu dau.

Mundu guztiak, ondo be ondo dakigunez, onartu ta txalotu izan ditu olerkariak, antxiña bateko griegoak eta latiñak, eta geroagoko izkuntzetakoak. Arein lanak, bertso-lanak, etenbarik argitaratuak izan dira: libururik bikaiñenak poesiz osotuak dozuz. Begira Etxepare'n «Olerkiak», Ohienart'n «Atsotitzak eta Neurtitzak», Joanes Etxeberri'ren «Noelak», Lauaxeta'ren «Bide Barri-jak» eta «Arrats-beran», Lizardi'ren «Biotz-begietan», Orixe'ren «Euskaldunak», Salvatore Mitxelena'ren «Arantzazu», B. Gandiaga'ren «Elorri», J. M. Lekuona'ren «Muga beroak» eta abar. Zer diño onek? Olerkariak, bere barruko ideia, sentimentu, susmo ta antzeko biotz-intzirak itzez jantzita adierazten dauskuzan gizonaren gitekoak ba-dauala baliorik eta ederrik.

Lora eder da poesia, askorentzat. Cervantes'ek, bere «Kixote» liburuan, olerkia be, ikutuz beintzat, goratzen dauku: «Olerkia -diño-, nire ustez, neskatx bat da, samurra ta urte gitxiko gaztetxoa; beste neskatx batzuk daroaz alboetan -jakintza ta zientzi guztiak-, berau aberats, eder, txukun ta zoragarri jazteko; jakin-sail guztiak ditu zerbitzari, duiñago ta bikaiñago bilakatu dedin.

Poesia deritxogun neskatx onek, ondorioz, ez dau esku-ikutuz edo-ta arnasa loiz maskaldua izan nai; ez dau nai kaleak zear erabilterik, ez enparantza egaletan, mezulariak dagienez, iragar-azterik; ezta jaunen jauregietako baratz eta ezpaloi bazterretan ots-egiterik. Lotsor dozu-ta, ixiltasuna maite.

Bakotxak gaiñera -darrai Cervantes'ek- bere izkuntzan erakutsi bear ei dau bere antzea, bere trebetasuna. Omero'k griegoz eta Bergili'k latinez erakutsi eben. Erabagiz, bada, antxiña bateko olerkari danak amaren bularretik edoski eben izkuntzan azaldu ta adierazo ebezan euren gogoeta, biotz-ondo ta gaiñerako zer guztiak, eta etziran joan ezelan be arrotz-izkera billa; euren gan eukien bear ebena. Ez daitela, beraz, gitxi-etsia izan aleman poeta bere izkuntzan idazten diardualako, ezta gaztelarra, ezta «bizkaitarra» be bere izkuntzan idazten daualako.

«Olerkaria jaiotzez da olerkari», diño Cervantes'ek, garai artan zabal ebillen eritxiari jarraituz. Onek argi esan nai dau olerkaria amaren sabeletik datorrela ederraren senaz jantzita, duinduta, arnas aunditan. Eta olakoak, zeruak emondako argi ta eder-joera ta griñaz, gauza miresgarriak osotuko ditu.

Alan eta guzti be, berezko su ta indar orri lagundu egin bear jako. Irakurriz, ikasiz eta idatziz gauza eder askoren jabe egin oi da olerkaria, eta olan dagiana ez dagiana baiño askoz jatorragoa izango da nunbait. Arteak ez dautso berezkoari irabazten, ezta zapaltzen be, baiña bai edertu ta osotzen. Orrela berezkoa ta artea naste, artea berezkoaz indarturik, poeta oso, txit osoa aterako da.

## Sari irabazle

Gaur egun zabal autortu geinke; sari asko ta onak daukaguz idazleok eta olerkariok, geure sorpenen bidez, diru-mordoak eskuratzeko, naiz-ta poetak geienez diru-gose exkaxa erakutsi. Sari edo poesi-leiaketa orretatik bat Eusko Jaurlaritzak babesten dauan «Lizardi Saria» da. Poesigintzan ixuritako izerdiak zelabait ordaintzeko, urtero legez emon oi dan saria.

Oitura au ez da gero gaurkoa. Igaro gizaldian zear be d'Abadie'k eta besteak eratzen zituen euskal Lore-jokoetan, esaterako beti izan oi zan olerki-sariketaren bat. Geroago, gerra aurretxoan, 1930'tik asita, «Euskaltzaleak» alkarteak, J. Ariztimuño zirikatzaille errime zala, Olerti-Egunak ospatzen ziran; zazpi urtez, 1936'rarte, eta 1937'an be, gudatean ain zuzen, Bilbo'n Arana Goiri'ren omenez ospatzeko giñan, naiz-ta orduko izkillu zalaparta gogorrak zirala-ta, ospakizunik ez egin.

Urteak joan urteak etorri, Guatemala'n «Euzko-Gogo» eta Donostia'n «Atracción y Turismo»k eraturako konkurtsuok eta S. Mitxelena'ren saioak albora itxi barik, «Karmel» lenengo ta «Olerti» iru-illerokoa gero asi ziran (1959) ementxe Larrea'n Olerti-Egunak ospatzen eta gaur be, egundo utsik egiteke, jaitu oi ditugu anaitasun eder bizian. Gaur naiko bananduta gabiltzalako edo, beiñola aiñak ez dabez euren lanak bialtzen, baiña urtero jaso oi doguz mordo galantak, gero «Olerti» aldizkarian azaltzen diranak.

Gure olerkari saritsuk be, ots, Luis Baraiazarra'k bialdu izan dauz bere lanak bein eta berriz Olerti Egunera ta beste ainbat olako konkurtsuetara; baita sari politak eskuratu be. Azkenez, iraupenak balio aundia dau-ta, Euzkadi'n gaur diruz ta ospez daukagun saririk aundiena jaso dausku, Lizardi Saria. Maikoak, ia beti bardiñak, naiko zorrotz, atzetiko ta berekoi diralarik be -onek aillagiñean otzitu ta murriztu daroa olerkari askoren gogo-, Baraiazarrak polito egin eban galbae meetik igarotze ez erreza. Eta emen daukagu, naiz-ta bere jaiotzetiko apaltasunare-

kin ados ez egon, Parnaso gaintxoan kukurruku zolian.

## Olerki sarituak

Ez da bakarra saria irabazi eban poesia, 13 olerkik osoturiko txorta bat baiño. Txorta oni deritxa: «Bakardadeko bertso-ezpalak». Ona amairuon izenak: «Lokatzetik birsortuko da» (igazko uriol ikaragarria zala-ta); «Monastegi zaharra» (Markiña'ko karmeldar komentua); «Gelan» (olerkariak bere gelan dagian bizimodua); «Gabon gaueko sentipenak» (mundu aberatsa euskaldunarentzat); «Ene oporrak mendian» (mendia bai eder oporaldian be); «Biziaren taupadak» (or-emen ikusitako zerak margozten); «Bizia itzaliz» (orbelak lurrian, orma zaarrak untzoz...); «Poesia Bizia» (olerkiak oro bizi-erazten); «Amildegira hurbiltzen» (drogaen kondaira); «Harriaren mezua» (euskal errian arri asko mezulari); «Lurraren mezua» (barne-ikaraz or gure lurraldea); «Hego haizearen hegoetan» (kolore bako aizearen antzeko dira gaurko modak); «Laratz ondoko koplak» (aitita ta amama kontu-kontari sutondoan).

Emen geiegi ez luzatzeko, lau bakarrik aztertuko doguz apurtxo bat: 1) «Lokartzetik birsortuko da»; 2) «Ene oporrak mendian»; 3) «Biziaren taupadak» eta 4) «Amildegira hurbiltzen». bakotzak dau bere ezitia; txaska zuk be, irakurle, pixkat.

### «Lokartzetik birsortuko da»

Euskalerrian, edonun legez, noiztik noizera uiol batzuk izan dira, kalte galantak bazterretan egiñik. Ori jazo zan igaz be abuztuaren ogeta seian. Urratu ziran goiak eta beiñolako uiolaldian iduri bealde guztiak urez estaldu, uri ta errietako etxe, korta, bide ta soloetan esan-ezin alako okerrak egiñik.

Olerkariak orduan ikusi ta sentidua da emen amar zortzi bertso-lerrokotan abesten dauskuna. Ikusi a eta sentidu a kilikor dau oraindik, eta orixe adierazten aapaldi landuetan. Ona leenengo aapaldia:

«Euria, tximista, trumoia  
betoskoz jantzirik da goia  
zeru-zola burrunbadaka,  
tximista-geziz grakadaka.  
Bestetako ohial urdina  
herio-mehatxuz gordina,  
milaka zatitan urratuz  
goiak behean hots amorratuz».

Ederto pintatzen dau bat-batean sortu oi dan ekatxa, tximista, trumoi, euri... Goiak baltz, illun; beiak urez aserik. Eta luzaroan olan jarraituz, bazterrak suntsitzen, azken uiolean legez. Udan, opor-giroa zan, jai-egunak amaitu samar. Lanerako nagi. Leendik lanik-ezaren eztena, ta orain triskantza onen samina. Eroan eziña benetan. Kantuz diardu olerkariak:

«Dena eziñaren ezina  
ondamendiaren samina  
urek dena trumilka bilduz  
lur-zintzurretatik amilduz  
guztia hautsiz atzaparka  
hor zehar utziz lokatz-marka...  
horra tristurazko trixkantza!  
Badu honek gerraren antza».

Gudatean Durango'n, Gernika'n eta onako errietan egindako bonba-ausiabarrak dakar gogora uiolaren okerra aundi-azteko. Era orretako gatxetan bai kaskar gizon arroputza! Eziñaren eziñak ez dau egorik gaiñez egan egiteko.

Ura aurrera doa, indar ezigatxa bere-bere dauala. Zoroa benetan aren abiada Urko ta Artibai arru ta mendi-arte zear. Negarra izten dau doan bidean. Eriotzak be egin ditu. Olerkariak, saminaez:

«Noragabe uren ahoan  
lokatzezko zurrunbilan  
bizirik jaso dute ama.

Hura zen, baina, hura drama!  
hiru seme eraman ditu,  
urak brastadaka txikitu;  
berez bizigarri den ura  
eraile zakar bihurtu da».

Atzo eder ziran kaleak, or loi, zikin, urak kaleratu ziranetik.  
A zelako kale-jira! Dana erauzi dau errotik; basa-iñauteria beba-  
rru ta kaleetan.

«Ondamendi biharamona:  
haurrak dardar, triste amona,  
ondakin-zakar multzo itsusi  
ezin da besterik ikusi;  
horra hor trixkantzaren lorratz,  
etorkizuneko ordu garratz!»

Baiña zuk, gure erri!, ez etsi. Gaurko lana biarko lore, ta orrelaxe  
izan be. Erri batuaren indarra, nok neurtu? Gaur urte bete bete ge-  
roago, Bizkai osoak burua jaso dau. Itxaropenaren ondorena,  
barru-kemenaren frutua. Gaur kaleak leen baiño dotoreago,  
apaiñaago daukaguz; etxeak zuriago, dendak dizditsuago...

### «Ene oporrak mendian»

Gaur modan dago oporrak artzea, udaldian lanari agur  
eginda, mendian, itxasaldean, atsegiñen jakun lekuan amabost  
egun naiz illabete emotea. Baraiazarra'k komentuko eguneroko  
zeregiñez gafiñera eskolak emoten ditu egunero Mertzede-  
ko Ikastetxetan, eta onek, dakigunez, beti nekarazten dau irakaslea-  
ren izatea.

Eta olerkaria, bere gurpilla ta etxola artuz, ba-doa mendira.  
Nora? Ba al daki! Igaz ara, Auñamendi aldera; aurten Gorbei al-  
tzora. Noznai dozu zoragarri mendia, edertasunez ase-betea.  
Mendizale ta udatiarrok ez, otoi, onda gure mendiak, gure iba-  
rrak, gure baserri ta iturriak. Izadiak laztan besarkatzen gaitu  
beti.

Eta olerkariak, opor-aldiz mendiratu danean, onela dabes:

«Izadiaren altzoan nago  
haren taupadak dastatzen  
giza-bortxatik jarein zaizkigun  
basanderekin jostatzen.  
Pago azpiko orbel iherrak  
hots kraxkatuz ahoskatzen,  
goroldiotan ene oinatza  
bigunki da sehaskatzen.  
Hemen naukazu, Izadi sorgin!  
zure mahaian bazkatzen».

Au Izadiaren ederra, gure mendi-troketako atsegiña, dastatu dauanak bakarrik idatzi leike. Bakotzak, bere griñai leku emonik, antxe daukaz bere atsegin tokiak. Asko ta askori, arima garbiai nik esango, atsegiñik aundi zoragarrienak mendiko lillura-giroak dakartsez. Urbasa'ko oroldi ta bedar gurien biguna! Umetako seazkaz gogoratzen olerkaria; maitemindurik dabil oian barrana. Antxe aurkitu dau galdutako Aberria be.

Egunez ara-ona zorakortu ondoren, gabaz kendu-ipiñiko etxolan, pago azpian lo dagi: izarrak ditu bitzi zeru-azpian; egoak damotsa gau-kontzertua, kirkerrak kantuz diardue. Loa be kantagai dau:

«Haur bat bezala lokartuko naiz  
haiek gitarra jotzean.  
Izadi amak ondoan jarri  
didan kontzertu-hotsean.  
Argi bitako muga beltza den  
gaueko tarte motzean,  
hantxe etzan naiz ohialpe hartan  
Uste ohe arrotzean,  
horma gabeko paret xumedun  
sehaskaren bihotzean».

Itxartu da ta or datorkio egunsentia, «minbera» nunbait. Mendi gaiñeko egian agertuz dator, zalantzazko jaiotza barria

iduri. Atarira doa poeta, loaren marka begitik kendu eziñik... Patxo gozoa emon deutsa goizak, «haize leunez aurpegian».

Eta era orretan ainbat egun, mendiaren zoriontasunean murgilduta. Goruntz biotza, otoia gorago! Gero, jakiña, tristea beera-bearra!

### «Biziaren taupadak»

Olerki arin txanbeliña. Inguruan bizia daukazu taupaka. Igarri barik ernetan da bedarra, «lurraren goiz-orduko jaikiera eme».

Katakume biurria beti jostati, jauzi ta itzulika; arratsaldeko orduetan begiak illinti. Udabarriz artaldeak nun-nai zuri, eta bedardi orlegietan, bildots txikiak urduri. Kortako txaltxoari koplak oneik eskintzen dautsoz:

«Ikuilu lurruntsuan  
txaltxoa da jαιο,  
menturazko hauzia  
askatasun-saio;

giro barri epela  
hain arrotz ez zaio,  
orkatilen gain zutik  
tinkatu da iaio».

Erabat eioak dira beste bost estrofa be, txori-familia, saia-  
ren aitz-zuloko txitaldia, pago ta arizpeetako perretxiku ta on-  
doak, eta abar gogoraruz.

«Masail gorritto  
egunsentiaren lore

geure eskutan,  
moldakor, plastilinore».

errepika onekin amaitzen ditu bederatzi zortziko txikiak.

### «Amildegira hurbiltzen»

Bederatzi aapaldiko poema, amaika silabako lau bertso-  
lerroko. Onela:

— 11, (a)  
— 11, (b)  
— 11, (a)  
— 11, (b)



Errima ondo zaintzen dau, baiña erdiko etenari ta sinalefani ez dautso jaramonik egiten.

Gazte-zale da olerkaria. Gaurko gazteak, orraitño, arrisku itzalean ikusten ditu. Noragabeko sutan bait dabilta! Ames zurrunbillo itsuan, paradizu orixe dalakoan. Siñisgogor, ukakor, naigabetuak. Olerkariak onela ikusten ditu:

«Dena ukatzen, lehena gaitzesten  
gaztea higikun irakinduan;  
nagusian hitzik ez du sinisten,  
saminez dabil aire suminduan».

Goiak eta beiak madarikatua, bide ertzeko sasitzan itxia dala, uste dau. Eta zer dagi? Drogara jo. Or amildegia.

«Hor dago drogaren amildegia  
galbideko ezten ihesgarria  
atsegin gisako izterbegia  
gaitz etsiaren eremu larria».

Zek daroa ortara gure gaztedia?

«Oztopoak, zango trabak, kateak  
eraman dute drogan murgiltzera  
odola garrez, hertsirik atek,  
amildegira doa hurbiltzera».

Bai, baztertu-zorigaitzez ikusten dabez euren buruak, gizarteko gaitzen sari artean. Baiña itxaropen-dirdira iragarten dau olerkariak, «ilunbetako gau izukorrean». Onela amaitzen dasku bederatzigarren bertso-moltzoa:

«Borrokarien herriko gazteri,  
erroien haragi ustel ez izan!  
Zertan zaude hor lokatzean eri?  
Amets-egunsentiz zuti gaitzezan!

Onakoxeak ditugu Aita Luis'en olerkiak, Lizardi-Sariketara baldu zitunak. Gaiñ-gaiñetik ikusi doguz; merezi leukie, alan be,

azterketa sakon bat.

Olerkari da. Ortan jardun izan da, ta orretan diardu gaur be, olerkigintzan. Asti-arteak ez ditu alperrik galtzen. Orrez gaiñ, esan daustienez, orain arte idatzi ta sariz txalotuak izan diran oler-lanakaz bilduma joria osatzeko asmoz dabilkigu. Erriaren izkuntza -euskera- maite dauana ezin eskuzuri ta fardel bizi.

*Aita Onaindia*

## «OLERTI - EGUNA» LARREAN

Beste urteetan legez, aurten be, Larrean «Olerti-Eguna» ospatuko da.

**Noiz?** Azaroaren 18'an, igaz erabagi zanez.

**Poesi-leiaketa,** iru zatitan: I. Lirika. II. Poema, eta III, bertso-sailla.

**Noizko lanak bialdu?** Urrillaren azkenerako egon daitezala Larrean.

**Jaia?** Beti legez, Mezea amaika t'erdietan sariak emon eta irakurketa, bazkaria ta gaiñera-koak.

**Noren omenez?** Ilbarri dogun Aita Bonifazio, kaputxiño langille, euskaltzale zintzo ta olerkari ona omenduko da.

*AITA ONAINDIA*